

Jaiak Picu Urriellun eskalatzen

Santixauak orain oso urrun geratzen badira ere, abentura hau uztailearen 24an hasi zelako ekarriko ditut gogora eta guretzat jaiak han izan zirelako. Ermuan geratu ziren guztiek bezala, Santixau bezperan hasi ginen gu ere.


Cardenal Orbe plaza jendez gainezka, giroa bero-bero eta gorputzak busti-bustita. Txupinazoa entzun eta kotxea martxan jarri orduko Ermutik ihes egin genuen Picu Urriellura.

Hurrengo egunean ez zuen euririk egin, baina triste samar esnatu zen eguna. Denbora geneukan eta horregatik lasai-lasai gosaldtu genuen, ondoren Vega de Urriellura joateko. Bi ordu behar izan genituen heltzeko. Izan ere, goranzko bidea etengabea zen baina horrelako bideak egitea atsegina eta ederra izaten da.

Heldu ginenean, lainoa izugarria zen eta ezin izan genuen arratsaldera arte gure helmuga ikusi, Picu Urriellu hain zuzen ere. Pareta ikusi genuenean harrituta geratu ginen, gure asmoa eskalatzea zelako eta hori izan zen biharamuneko plana.

Eskalatzeko prest

Jaiki ginenean, behean dena itxita, lainotuta zegoen baina goian ordea, garbi, urdin-urdin eta bero. Goitik Europako mendikate guztiak ikusten ziren eta gu goizeko 9:00etan eskalatzen hasi ginen, 5 ordu jarraian eskalatu ondoren gure oinek atsedena behar zuten. Ez zen erraza izan baina zailtasunak atzean utzita, azkenean aukeratu genuen ruta ez zen hain zaila izan. Garbi neukan arazorik gabe egin ahal genuela eta horrela eskalatu genuen. Prisarik gabe eta ondo gozatu eta gero, aterperantz abiatu ginen. Noizean behin atzerantz begiratu, nondik nora zihoan gure ruta ikusteko. Aterpera heldu ginenean ustekabea hartu genuen gure lagunak ez ikustean. Goizean osteratxo bat egitera atera ziren eta arratsaldeko 8:00etan oraindik ez ziren bueltatu. Halako batean, gaueko 10.00etan, galduta eta oso nekatuta agertu ziren eta gose handiarekin. Afaldu, barre batzuk egin eta lotara.




Zezen eguna

Berriz ere lainoa jaiki ginenean. Goiz osoa Vega de Urriellun pasa genuen. Batzuk eguzkitan, beste batzuk korrika egiten Torre Cerredora joan ziren eta beste batzuk Picu Urriellu agurtzera joan ginen.

Arratsaldean eta zezen eguna zela aprobetxatuz, Arenas de Cabralesen pote batzuk hartu genituen eta han ere Ermuko batzuekin egin genuen topo, Zubiaurre kalean egongo bagina bezala. Eta Ermuan bezala gure jaia eta abentura bukatu zen.

David Ezejalde

IKASTOLA
33 urte Ermua
euskalduntzen




TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko



IN FREN
TABERNA

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAINFRESCOAKETA
- IZOITUAK

ESKAINTZA BEREZIA
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA